

EUDELEN AGERRALDIA ARABAN TOKI ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO FORU FUNTSA (TEFFF/FOFFEL) ALDATZEKO PONENTZIAN (2013/07/11)

Arabako Batzar Nagusietan Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa (TEFFF/FOFFEL) arautzeari buruzko 19/1997 Foru Araua aldatzeko asmoz, 2013ko uztailaren 11n eraturako ponentzian EUDELeko ordezkariak parte hartu zuten.

Era berean, 2013an, EUDELek Arabako Lurralde Batzordearen bitartez, tokiko interesak babestearen alde modu aktiboan lan egin izan du, Toki Erakundeak finantzatzearen aldeko hitzarmenak lortzeko asmoz; zehatz-mehatz, hurrengo gaitan:

1.- Opor Fiskalen banaketa (Estatuaren laguntzak)

Egindako lan handiari esker, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen artean 229,7 milioi euroko zenbatekoa duten eta 2012an berreskuratu ziren Opor Fiskalak banatu dira. Ildo horretan, eta EUDELen proposamenez, Arabako Foru Aldundiak honakoa erabaki du:

- 2013ko ekitaldian, 24,7 milioi euro gehigarri ordaintzea Tokiko Erakundeei TEFFFen banaketari dagokionez (2013eko ekitaldirako TEFFFen %14,5), apirileko, uztailako eta urriko konturako ordainketekin batera. Zenbateko hori Lurraldeko baliabide eskuragarrien %52,3ko partaidetzari dagokio.
- 2014ko ekitaldirako, konpromiso gehigarriko kreditua aitortzea Arabako Foru Aldundiko aurrekontuetan, "Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Ezohiko Finantziazioa" delakorako, 1,7 milioi euroko zenbatekoan. Zenbateko hori Lurraldeko baliabide eskuragarrien %3,7ko partaidetzari dagokio.

2.- Obra eta Zerbitzuen Foru Planean (OZFP) atzera botatako diru-laguntzak, 12.014.791,24 €-ko zenbatekoan.

2011ko ekitaldian, Arabako Foru Aldundiak atzera bota zituen Obra eta Zerbitzuen Foru Planean Tokiko Erakundeei aldeztu aurretik emandako diru-laguntzen 71 espediente. Atzera botatako diru-laguntzen kopuruak 12 milioi euroak gainditzen zituen, eta **Aldundiak bere aurrekontu orokorrean sartu zuen zenbateko hori.**

EUDELek beti defendatu izan du funts horiek hitzartutako zergen udal partaidetzatik datozela, eta, beraz, Tokiko Erakundeenak direla ulertu beharko litzatekeela eta beraien artean banatu beharko liratekeela.

EUDELek egindako kudeaketen emaitza gisa, Arabako Batzar Nagusietan 2013ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuran, mozio bat onartu zen; horren bitartez, Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu zioten berriz ordaintzeko Arabako Tokiko Erakundeei, Vitoria-Gasteizko Udalarari izan ezik (ez baitu OZFPn parte hartzen), atzera botatako diru-laguntzen zenbatekoa; hain zuzen ere, %25 urteko, 2014tik 2017ra bitarteko ekitaldietan, TEFFFen aparteko ekarpen gisa.

3.- Tokiko Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtsaren (TEPEF) saldoa Tokiko Erakundeen Foru Funtsean indibidualizatzea.

EUDELe defendatzen du TEPEFen konpentsazioa modu indibidualizatuan egin behar dela, hau da, Tokiko Erakunde bakoitzak ekarpenak egin beharko lituzkeela aurreko urteetako TEFFFen likidazio negatiboak konpentsatzeko, Funtsean duten partaidetzaren arabera.

Hori horrela, aurtengo urtarrilean, EUDELe TEPEFen indibidualizazioa eskatzeko txostena egin zuen eta Arabako Foru Aldundiari igorri zion; bertan, besteak beste, bi argumentu garrantzitsu justifikatzen ziren:

- TEPEFek estalitako zenbatekoek zorra sorrarazi dute Foru Aldundiarekin, eta, beraz, Tokiko Erakundeek Arabako Foru Aldundiarekin duten zorra jaso behar dute euren kontabilitate-egoeretan, aurreko urteetako TEFFFen likidazio negatiboak direla-eta. Horretarako, funtsezkoa da beraien gaineko ezagutza indibiduala izatea.
- Gertakari horrek ez lioke kalterik egingo Aurrekontuaren Egonkortasunerako Legearen iraunkortasun finantzarioaren printzipioaren instrumentazioari; izan ere, udal zorrari ez zaio gehitu behar TEPEFen ondorioz Foru Ogasunarekin izandako zorra, Aurrekontuaren Egonkortasunerako Lege Organikoaren araberrako zor-bolumena zehazteko orduan.

TEPEFen saldoak, 2012/12/31n, 60,9 milioi euroko zenbateko global osoa zeukan. Hala ere, orain arte ez da indibidualizatu. EUDELetik, gai honek duen garrantzia azpimarratzen jarraituko dugu.

4.- Arabako Lurralde Historikoaren katastro higiezinaren osaketa, kontserbazio, berrikuspen eta beste funtzio batzuen kostuaren banaketa.

1998tik, Arabako udalek katastro higiezina mantentzeko kostuaren %50 hartzen dute euren gain. Baina Arabako Lurralde Historikoaren katastro higiezinaren osaketa, kontserbazioa, berrikuspena eta horren inguruko beste funtzio batzuk Foru Aldundiari dagokio modu **esklusiboan**; beraz, EUDELe defendatu izan du kostua Arabako Foru Aldundiak hartu behar duela bere gain oso-osorik.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, katastro higiezinaren mantenimenduaren kostua Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzen dute beren gain, hurrenez hurren. Zentzu horretan, ez da bidezkoa Arabako udalek kostuaren %50 hartzea euren gain 1998az geroztik.

Hori dela-eta, martxoan, EUDELe Arabako Lurralde Batzordean hartutako akordioa bidali zien Batzar Nagusietako taldeei, Arabako Batzar Nagusietako lehendakariari eta ATAFLKen presidenteari (Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde



Kontseilua). Akordio horren bitartez, udalak Foru eskumenekoa den kostu baten kargu egitera derrigortzen dituen Xedapen arauemailea bertan behera uzteko eskaera egin zen, Arabako Batzar Nagusietan hasiera eman dakion arauaren aldaketaren tramitazioari.